



«“Adinberri”. Zahartze aktibo eta osasungarriaren erronkak» programa

II ERANSKINA: Negozio aukera berriak bultzatzea

Urtea :2021 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Zahartze aktibo osasungarriaren esparruan aukera berriak sortuko dituzten ekimenen garapena sustatzea Gipuzkoako enpresa-sarean.

ENTITATE ONURADUNAK

Gipuzkoan dauden enpresak.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako hauek izango dira: produktuak eta/edo zerbitzuak garatzeko proiektuak eta/edo proba-faseak ezartzea, produktuak eta/edo zerbitzuak merkaturatu edo industrializatu aurretik, eremu hauetan:

- Adinekoen bizitzarako eta garapenerako ingurune eta espazio egokiak, honako hauek ahalbidetu eta erraztuko dituztenak: autonomia, irisgarritasuna, konektibitatea, egitura adimendunak, inklusibitatea, ahalduntzea, duintasuna eta soziabilitatea.
- Prebentzio, zaintza eta arreta ereduak, pertsonen bizi kalitatea eta langileen lan baldintzak/lan kalitatea hobetzeko, baita sistema soziokomunitarioaren hurbiltasuna, lankidetzeta eta eraginkortasuna hobetzeko ere.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 35a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 euro/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

- Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x 12 \times 1,25$ / Urteko ordu kopurua.
- Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsoneri dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.

Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen **bidaiei eta egonaldiei** dagozkienak bakarrik

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 55 izango dira.

Ehuneko hori % 25 handituko da proiektuen garapenean Adinberri Fundazioaren benetako lankidetzeta sartzen duten entitateen kasuan. Alde batetik, proiektuak Gipuzkoako zahartze aktibo eta osasuntsuaren estrategiari egiten dion ekarpena handitzen da, eta, bestetik, proiektua indartzen da Gipuzkoako zahartze ekosistemarekiko sinergien bidez.



EMATEKO PROZEURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ALA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan estatalak, izan Europar Batasunekoak edo izan nazioartekoak, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderekina

BETETZEKO EPEAK

- Eskaerak aurkezteko epea: **2021eko irailaren 17an, goizeko 12:00etan amaituko da**
- Jarduerak hasteko epea: **diru-laguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**
- Proiektuen exekuzio data: **2022ko ekainaren 22a.**
- Proiektuak justifikatzeko data: **2022ko uztailaren 22a.**

ARAUDI APLIKAGARRIA

«“Adinberri”. Zahartze aktibo eta osasungarriaren erronkak» programaren oinarri arautzaileak. II. ERANSKINA: **Negozio aukera berriak bultzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak.**

(2021eko uztailaren 27ko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 2021/149 zk. 2021eko abuztuaren 6an](#))

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/proiektu-estrategikoak/adinberri/erronka-demografikoa>
- Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENENKO ZERBITZUA

- Kudeaketa administratiboa: 943.113770
- Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus